



**LEGEZKOTASUN TXOSTENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEKO  
LANKIDETZA PROTOKOLO OROKORRARI BURUZKOA.**

**6/2023 LT - LGAKZ**  
**NBNC\_PRO\_5725/22\_01**

**I. AURREKARIAK**

Lehendakaritzako aholkularitza juridikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Zarauzko udalaren arteko lankidetza protokolo orokorrari buruzko nahitaezko Legezketasun txosten eskaera egin du Tramitagune tresna informatikoaren bidez. Lankidetza protokoloaren testuaren zirriborroaz gain, txosten eskaerarekin batera, honako dokumentazio hau helarazi du:

- Lankidetza hitzarmenaren justifikazio memoria.
- Sailaren txosten juridikoa.
- Ekimenak ondorio ekonomikorik ez duela justifikatzen duen txostena.
- Gobernu kontseiluaren erabaki proposamena.

Txosten hau Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.b) artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 13.1 b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera egin da; izan ere, artikulua horren arabera, Zerbitzu Juridiko Nagusiari dagokio legezketasunari buruzko txostena egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek edo erakunde instituzionalek izenpetu behar badituzte beste hauekin: Beste administrazio publiko batzuk eta horiei lotuta edo horien mende dauden zuzenbide publikoko erakundeak.

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ  
tef. 945 01 86 30 – Fax 945 01 87 03



Aurrekoarekin lotuta, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 15.1.a artikulua gaitzen du txosten hau egiteko eskumena; izan ere, artikulua horrek Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari esleitzen dio legezketasunaren barne-kontrola, besteak beste, Sailek eta erakunde autonomoek hala eskatzen dutenean, haien eskumenekoak diren arazoei buruzko irizpenak edo txosten juridikoak lantzea.

## II. OBJEKTUA

Saileko txosten juridikoak ezartzen duen moduan, proposatutako Jarduketa Protokolo Orokorren xedea honako hau da: “*Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren eta Zarauzko Udalaren arteko lankidetzasparrua ezartzea*”.

Hitzarmenaren natura juridikoaren inguruan, aldiz, esan dezakegu Jarduketa Protokolo Orokorra dela, eta beraz ez dakartzala alderdiek eska dezaketen eduki juridikoko harremanik, ez eta sinatzaileen arteko lankidetzaren betebeharririk ere.

Saileko txostenak dioen moduan, Jarduketa Protokolo Orokorren urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa arautzen duen apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 54.2. artikuluan arautzen dira. Hala ere, gogoratu behar dugu maiatzaren 12ko 3/2022 legeak ere, Euskal Sektore Publikoarenak, 33. artikuluan arautzen dituela hitzarmenak eta protokoloak.

Protokoloaren testuari erreparatuz, esan dezakegu sinatzaileek ez dutela konpromiso juridiko zehatzik zehazten, ez eta exijitzeko moduko betebeharririk ere; horri lotuta, protokoloan ez da ordainketa betebeharririk gauzatzen.

### III. IZAPIDETZEA

Izapidetzari dagokionez, bat gatoz saileko txostenak esandakoarekin, hau da, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuak 13.2 artikuluan eskatzen duen moduan beharrezkoa da egiten ari garen Legezketasun Txostena, eta Txosten honen ondoren Gobernu Kontseilura igorri beharko da.

Puntu honetan, apirilaren 25eko 144/2017 dekretuak ezarritakoa betez, lankidetzaren protokolo orokorra izanik, alde aurretiko baimenik behar ez duen arren (57.2 artikulua), protokoloa EA Eren izenean Lehendakaria ez den norbaitek sinatuko duenez, sinatzeko baimen hori derrigorrez gobernu kontseiluak eman beharko du, dekretu beraren 62. artikulua araberak. Egoera hau behar bezala jasotzen da espedientearekin batera bidalitako gobernu kontseiluaren akordio proposamenean, bai eta txosten juridikoan ere.

### IV. ESKUMENA

Eskumen materiala eta funtzionalari dagokionez, bat gatoz saileko txosten juridikoak esandakoarekin.

### V. EDUKIA

Aztertzen ari garen lankidetzaren tresna protokolo orokorra izanik, lankidetzaren hitzarmeni buruz urriaren 1eko 40/2015 legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, Atariko Tituluaren VI. Kapituluaren ezarritako araubide juridikoa ez da zuzenean aplikagarri, lege honen 47. artikulua araberak. Hauxe dio aipatutako artikulua: ***“Ez dira hitzarmentzat hartzen jarduketako protokolo orokorrak edo antzeko tresnak, baldin eta eduki orokorreko asmoen deklarazio hutsak badakartzate edo administrazioek eta alderdi sinatzaileek***

*helburu komun batekin jarduteko duten borondatea azaltzen badute, **betiere haien ondorioz ez bada konpromiso juridiko zehatz eta eskatzeko modukorik formalizatzen***”.

Era berdinean da 144/2017 Dekretuaren 54.2 artikulua, hauxe dio:

*2.– Edonola ere, ez dira hitzarmenak hartuko prozedurako jardun-protokolo orokorrak edo antzeko baliabideak baldin eta eduki orokorreko asmo-adierazpen hutsak badira edo administrazioen eta alderdi sinatzaileen helburu komun baterako jardun-borondatea baino adierazten ez badute, eta konpromiso juridiko zehatz eta galdagarriak formalizatzen ez badute.*

Bestalde, maiatzaren 12ko 3/2022 legeak, Euskal Sektore Publikoarenak, 33.3 artikuluan honako hau dio: **“Protokolo orokorra esango zaio hitzarmenari bere helburua hauetakoren bat denean: orientazio-jarraibideak ezartzea administrazio publiko bakoitzak jakiteko nola jokatu behar duen guztientzat interesgarriak diren gaietan edo esparru orokorra eta metodologia finkatzea eskumen-arlo partekatu batean edo bataren eta bestearen intereseko gai batean lankidetzan jarduteko”**.

Badirudi 3/2022 legeak protokolo orokorra ere hitzarmenen araubide juridikoaren barne ezartzen duela, eta horrenbestez nolabaiteko kontraesana dagoela estatuko legeriaren, 144/2017 dekretuaren eta 3/2022 legearen artean. Hori horrela izanda, ez dirudi jarduera protokolo orokorren izaerari begiratuta, betebeharrak juridiko berezirik ezartzen dutenik; alegia, hauen edukiak urriaren 1eko 40/2015 legeak 49. artikuluan hitzarmenen eduki minimoari buruz adierazitakoa bete behar dutela, baina agian bai litzateke egokia analogiaz, jarduera protokoloen izaeraren aurka ez doazen bestelako betebeharrak guztiak betetzea. Era berean, 3/2022 legeak honakoa dio hitzarmenen edukiari buruz:

*“4.– Hitzarmen-agiriek honako hauek zehaztu beharko dituzte, hala dagokionean:*

- a) Zer organok sinatzen duten hitzarmena, eta zein gaitasun juridikoz diharduen alderdi bakoitzak.*
- b) Zein den administrazio bakoitzaren eskumena.*
- c) Nola finantzatzen den hitzarmena.*
- d) Zer jarduketa adostu diren.*
- e) Organizazio pertsonifikaturik behar den ala ez hitzarmena kudeatzeko.*
- f) Zein den hitzarmenaren indarraldia, eta aukerarik badagoen hura luzatzeko; aukerarik badago, zein den hitzarmena luzatzeko araubidea.*
- g) Hitzarmena azkentzea indarraldiaren amaiera ez den arrazoi bat dela kausa eta, azkenduz gero, indarrean dauden jarduketak ebazteko modua.”*

Aztertutako kasuan, Protokoloaren beraren edukiari dagokionez, azalpen-zati bat eta bederatzi estipulazio ditu, banan-banan aztertuko ditugu jarraian:

- Hitzaurrean, sinatzaileak nortzuk izango diren eta hauen eskumena aztertzen da.
- Lehen klausulan, protokoloaren xedea zein izango den adierazten da.
- Bigarren klausulan lankidetzarako esparruak.
- Hirugarrenean erakunde bakoitzak zein asmo duen jasotzen da, nahiz eta ez den inolako betebeharr juridikorik ezartzen.
- Laugarren klausulan finantzaketari buruz hitz egiten da, nahiz eta aurretiaz esan dugun bezala, protokolo honek ez du eragin ekonomikorik, eta beraz ez dago finantzaketa konpromisorik.
- Bosgarren klausula protokolo honetatik erator litezkeen jarduera ezberdinei buruzko zabaltzeari buruzkoa da.
- Seigarren klausula, protokoloaren araubide juridikoari buruz dio, protokoloaren betetzeak sor ditzakeen arazoak jarraipen batzordeak ebartziko dituela.

- Zazpigarren klausulan aipatutako jarraipen batzordea sortzen du, eta batzorde honen funtzionamenduari buruz dio, honek bere funtzionamendu arauak izango dituela beti ere urriaren 1eko 40/2015 legeak kide anitzeko organoei buruz ezarritako xedapenak betez. Kontuan izan behar da, maiatzaren 12ko 3/2022 legeak, hitzarmenei buruzko 33 artikulua 5. atalak, jarraipen batzorde hauek sortzeko aukera ematen duela honela:

*“5.– Hitzarmen horietan, hitzarmena zaintzeko eta kontrolatzeko organo mistoak sortu ahal izango dira elkarlanerako hitzarmenak interpretatzerakoan eta betetzerakoan azal daitezkeen arazoak ebazteko.”*

Honexegatik, komenigarria litzateke lege honen aipamena egitea zazpigarren klausula honetan.

- Zortzigarrena, protokoloaren indarraldiari buruzkoa, bertan indarraldia 2 urtekoa dela dio, eta salaketarik ezean luzatu ahal izango dela. Ala ere klausula hau irakurrita ez da guztiz garbi gelditzen protokoloaren luzapena automatikoa izango den edo ez, behin epea igarota salaketarik egongo ez balitz. Gauzak horrela, eta kontuan hartuz urriaren 1eko 40/2015 legaren 49.h.2) artikulua jasotakoa, egokiagoa litzateke berariaz adieraztea protokoloaren luzapena akordio bidez egingo dela hasieran adierazitako muga epea amaitu aurretik.
- Bederatzigarren klausulan protokoloa alde aurretik suntsiarazteko arrazoiak ezartzen ditu.

Behin edukia aztertuta esan dezakegu protokoloak behar bezala betetzen dituela urriaren 1eko 40/2015 legeak eta maiatzaren 12ko 3/2022 legeak ezarritako betekizunak. Horrenbestez, adierazitako ohartarazpenak eginda,

aldeko irizpena ematen diogu legezketasun azterketara aurkeztu diguten jarduketa orokorreko protokolo honi.

Hori da igortzen dudan txostena. Edonola ere, Zuzenbidean hobeto oinarrituta legokeen beste edozeinen menpe jartzen dut.